

ERAIKUNTZA LANAK ABENDUAN HASI ETA ENERGIA PLANTA BERRIAK 2002. URTEAN EGONGO DIRA ABIAN

'Bizkaiko Badia' proiektuek argindar eta gas autohornikuntza ekarriko dute

■ Euskadiko Gas-ek Gas Natural-ekiko menpekotasuna hautsiko du, gasa Trinidad eta Tobagotik zuzenean inportatuz

■ BP Amocok, Iberdrolak, Repsolek eta EEEK 75.000 milioi pezetako kapital ezarpena egingo dute aurten

■ Eraiketa lanek 2.000 lanpostu sorraraziko dituzte, baina bi plantek, azkenean, 100 lanpostu edukiko dituzte

Joseba Aiarza / Zierbena

BILBOKO Portuan kokatuko diren birgasifikazio planta eta argindar planta (Bizkaiko Badia Gas eta Bizkaiko Badia Argindar proiektuak) aurten go abenduan hasiko dira eraikitzen, eta 34 hilabete geroago egongo dira abian, 2002aren amaieran. Eraikuntza lanen adjudikazio lehiaketa zabaldu dute dagoeneko proiektuen eragileek.

BP Amocok, Iberdrolak, Repsolek eta EEEK (Energia-aren Euskal Erakundea) 75.000 milioi pezeta inbertituko dituzte proiektu haue-
tan. Inbertsioa egiteko bazkide bakoitzak kapitalaren %25 jarriko du aurten (18.750 milioi).


Bizkaiko Badia proiektuak atzo aurkeztu zituzten Josu Bergara Bizkaiko ahal-
dun nagusiak, Josu Jon Imaz Industria sailburuak eta Iñigo Ortuzar Zierbenako alkateak. Instalazioak udal-
erri honetako lurretan egongo dira, 230.000 metro koadroko lur eremu-
an.

Energia azpiegitura hauen garrantzia azpimarratu dute agintarie-
k. Ikuspegi ekonomiko-
tik, Bizkaiko Badia Gasek 42.000 milioi pezeta fak-
turatuko ditu urtean, eta Bizkaiko Badia Argindarrek 44.000 milioi pezeta. Bizkaiko Ogasunak urtean 6.000 milioi inguru bilduko ditu energia ekoizpen honi dagoz-
kion zergetan.

Enpleguaren ikuspuntu-
tik, berriz, Bizkaiko Badia proiektuek 2.000 lanpostu sorraraziko dituzte eraiketa fasean, nahiz eta plantak abian daudenean 100 lan-
postu zuzen eduki.

Hornikuntza Amocok; banaketa EEEK

Birgasifikazio plantara iritsi-
ko den gas likidoa BP Amocok Trinidad eta Tobago irletan dituen gas sorguneetatik eka-
rriko dute. Bizkaiko Badia platan berriz gasifikatu oste-
an, gas naturala argindar




XOUSA SIMAL

EAEko Industria sailburu Josu Jon Imaz, Bizkaiko ahal-
dun nagusi Josu Bergara eta Zierbenako alkate Iñigo de Loyola Ortuzar.

BIZKAIKO BADIA ENERGIA TALDEA

BILBOKO PORTUA (ZIERBENA)



zentraletara nahiz kontsu-
mora bideratuko da.

Euskadiko Gasek eta Rep-
solek hornikuntza kontra-
tuak sinatuko dituzte BP
Amocorekin. Ondorioz, Eus-
kadiko Gasek hautsi egingo
du Espainiako Gas Naturala-

ren monopolioa, gasa zuzene-
an inportatuta.

Bizkaiko Badia Gasek
2.700 milioi metro kubiko gas
natural emango ditu urtean.
EAEko kontsumoa 1.000 mi-
lioikoa da une hauetan.

Bizkian prestatzen ari di-

ren ziklo konbinatuko argin-
dar zentral guztiak hornituko
ditu birgasifikazio plantak:
Bizkaiko Badia Argindar, Pe-
tronorreko IGCC instalazioak,
Iberdrolak Santurtzin egingo
duena eta Irlandako ESBk
Zornotzan eraikiko duena.

Baliteke La Navalek gas ontziak egitea

■ BIRGASIFIKAZIO plantak
eragingo dituen jardueren
aldetik, gasa garraiatzeko
lau itsasontzi eraikiko di-
rela azpimarra daiteke. Lau
gasontzietatik bi Bizkaiko
Badia plantarako izango dira,
eta Repsolek beste bi eraikiko
ditu. Javier Aranburu sailburu-
ordeak aipatu duenez, Ses-
taoko La Naval ontziolak
aukera handiak ditu itsa-
sontzi hauek egiteko, ho-
rretarako «gaitasun tekni-
koa eta dimentsio egokiak
baititu».

Bestalde, Imazek azpi-
marratu duenez, proiektu
hauek bultzada handia
emango diote ekipu onda-
sunei, muntaketari nahiz
eraikuntza enpresen jar-
duerari. Bilboko portuan,
berriz, trafiko eta zerbitzu
gehiago, ingeniari-
ritza eta osagarrien hornikuntza
jarduerak eragingo ditu.